

## Udako igerilekuak ekainaren 15ean irekiko dira

Azken eguneratzea: Asteartea, 14 Ekaina 2022 10:04

Argitaratua: Astelehena, 13 Ekaina 2022 14:14

---



*Egunero, irailaren 15a arte egongo dira zabalik murrizketarik eta arau berezirik gabe*

Ekainaren 15etik irailaren 15era, egunero egongo dira zabalik estaligabeko udal igerilekuak. Aurten, eta behin Covid 19ak eragindako pandemia atzean utzita, murrizketarik eta arau berezirik gabe. Ordutegia honakoa izango da; aste bitartean, astelehenetik ostiralera, goizeko 11:30etik 20:30era eta asteburuetan eta abuztuan 20:00ak arte.

Igerilekuko ohiko zerbitzuak martxan egongo dira, hala nola, itzalkiak, duxak, aldagelak, taberna eta bibliopiszina. Aurten, Brezoko itzalkiak aldatu dira eta berriak ipini.

### **Bibliopiszina zerbitzua**

Bibliopiszina zerbitzuak, liburu-maileguak egiteaz gain, herritarrei kontsultak eta aldizkariak nahiz egunkariak irakurtzeko aukera eskainiko die; baita udal liburutegia arratsaldean itxita dagoen garaian.

Bibliopiszina zerbitzuko ordutegia arratsaldeko 16:00etatik 19:15era izango da astelehenetik ostiralera. Eguraldi txarra egiten duenean itxita egongo da.

Antzizar Kiroldegiko udako abonoa (ekaina-iraila) egiteko aukera zabalik dago. Tarifei buruzko informazioa lotura [honetan](#) kontsultatu

## **Udako igerilekuak ekainaren 15ean irekiko dira**

Azken eguneratzea: Asteartea, 14 Ekaina 2022 10:04

Argitaratua: Astelehena, 13 Ekaina 2022 14:14

---

daiteke.